Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO
Gizarte Zerbitzuak
Servicios Sociales

**Mendekotasuna duten edo hori izateko arriskuan dauden pertsonen senideentzadko atseden-zerbitzuaren arauak.**
**Normas del Servicio de Respiro para familires de personas en riesgo o situación de dependencia.**

Euskadi 2006

# MENDEKOTASUNA DUTEN EDO HORI IZATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN SENIDEENTZAKO ATSEDEN-ZERBITZUAREN ARAUAK.

# NORMAS DEL SERVICIO DE RESPIRO PARA FAMILIARES DE PERSONAS EN RIESGO O SITUACIÓN DE DEPENDENCIA.

## ZIOEN AZALPENA

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

**Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legea**ren helburua honako hau da: Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan gizarte-zerbitzuen eta -prestazioen zerbitzuetarako eskubidea sustatu eta bermatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsala araututa eta antolatuta, eta prestazio eta zerbitzuetarako sarrera eskubide subjektibo gisa ezarrita.

La **Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales** tiene por objeto promover y garantizar en el ámbito de la CAPV el derecho a las Prestaciones y Servicios Sociales mediante la regulación y ordenación de un Sistema Vasco de Servicios Sociales de carácter universal configurando el acceso a las prestaciones y servicios como un derecho subjetivo.

**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua**k arautu zituen prestazioen eta zerbitzuen betekizunak eta irizpideak (II. kapitulua), sarrera-prozedurak (III. kapitulua) eta edukia (IV. kapitulua); horrela, aipatutako 12/2008 Legearen eskubide subjektiboa zehaztu eta finkatu zuen.

El **Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales,** regula los requisitos y criterios (Capítulos II), los procedimientos de acceso de acceso (Capítulo III) y el contenido de cada prestación y servicio (Capítulo IV) dando contenido y delimintado el derecho subjetivo proclamado en la citada Ley 12/2008.

**185/2015 Dekretuko I. eranskinak** atseden-zerbitzua arautzen du, etxeko laguntza-zerbitzuaren aldaera gisa.

El **Anexo I al Decreto 185/2015**, regula el Servicio de Respiro como variante del servicio de Ayuda a domicilio.

Zehazki, 185/2015 Dekretuko I. eranskinean zaintzaile nagusiarentzako atseden-zerbitzu gisa definitzen da; hala, mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dagoen pertsona etxeko laguntza-zerbitzua jasoko du behin-behinekoz, edo zerbitzu horretan jada eskainitako mailako aldi baterako laguntza.

Concretamente, el Anexo I al Decreto 185/2015 lo define como un servicio de respiro para la pesona cuidadora principal mediante el acceso temporal de la persona en situación o riesgo de dependiencia al SAD o al refuerzo temporal de la intensidad ya ofrecida en dicho servicio.

Lehengo legeak eta dekretuak aurreikusitakoa betez eta garatuz, beharrezkoa da kudeaketa-irizpide komunak antolatzea, Getxoko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuko profesionalek ezagutza berdinak izan ditzaten, eta

De conformidad con las previsiones de la citada Ley y Decreto , y como desarrollo de las mismas, se considera necesario ordenar criterios comunes de gestión con el fin de generar un conocimiento uniforme entre l@s profesionales del Servicio social

Getxoko biztanleentzat ere erreferentzia izan daitezen, zerbitzuari dagokionez.

de base del Ayuntamiento de Getxo y que pueda servir también como referencia a la población de Getxo en lo que respecta a este servicio.

## I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

## CAPITULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

### 1. artikulua.- Arau hauen helburua eta xedea:

Atseden-zerbitzuaren erabilera-arauek xede dute kudeaketa-irizpide Atseden-zerbitzurako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan jasotakoa—, Getxoko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuko profesionalek ezagutza berdinak izan ditzaten, eta Getxoko biztanleentzat ere erreferentzia izan daitezen.

### Artículo 1º.- Objeto y objetivo de estas normas

Las Normas del Servicio de Respiro tienen como objeto ordenar criterios comunes de gestión del Servicio de Respiro regulado en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales con el fin de generar un conocimiento uniforme entre l@s profesionales del Servicio social de base del Ayuntamiento de Getxo y que pueda servir también como referencia a la población de Getxo.

### 2.- Artikulua.- Zerbitzuren definizioa eta helburua.

Atseden-zerbitzua Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren aldaera da. Mendekotasuna duen edo izateko arriskuan dagoen pertsona batekin edo gehiagorekin bizi den zaintzaile nagusiari zuzenduta dago.

Hain zuzen, zaintzaile nagusiari berarentzako denbora izateko aukera ematen dio.

Helburu du arreta sare naturala osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea. Horretarako, honako hauek gauzatze ditu:

- Aukera ematen dio zaintzaile nagusiari denbora izan dezan, etxetik kanpo jarduera zehatzak egin ahal izateko.
- Profesional adituen bitartez ziurtatzen du zaintzen den pertsonari arreta egokia egiten zaiola zaintzailea ez dagoenean.
- Laguntzen du mendekotasuna duten edo izateko arriskuan dauden pertsonak etxean eta inguruan

### Artículo 2º.- Definición y objetivos del servicio

El respiro es una variante del Servicio de Ayuda a Domicilio orientado al cuidador/a principal que convive con una o varias personas en riesgo o situación de dependencia.

Ofrece la posibilidad de que la persona cuidadora principal pueda disponer de tiempo para ella misma.

Tiene como objetivo apoyar a las personas cuidadoras que constituyen la red natural de atención:

- Posibilitar que la persona cuidadora principal pueda disponer de tiempo para realizar actividades puntuales fuera del domicilio.
- Garantizar, con profesionales cualificadas, la atención adecuada de la persona cuidada mientras la persona cuidadora no está presente.
- Favorecer la permanencia en el domicilio y entorno de las personas

geratzen.

en riesgo o situación de dependencia.

Atseden-zerbitzua doakoa izango da, harik eta Getxoko Udalak zerbitzuaren prezio publikoa ordenantza fiskal egokiaren bitartez arautu arte.

El disfrute del Servicio de Respiro será gratuita hasta que el Ayuntamiento de Getxo, a través de la correspondiente ordenanza fiscal, regule el precio público por este servicio.

**3. Artikulua: Herritar hartzaileak**

Foru Aldundiak aitortutako mendekotasuna duten edo izateko arriskuan daudenekin bizi diren familia zaintzaileei zuzenduta dago zerbitzua, zehazkiago, zaintzen dituzten senideei ez bazaie etengabeko egoitza-arretarik egiten ostatu-zerbitzuetan edo egoitza zentroetan.

**Artículo 3º.- Población destinataria.**

Dirigido a familias cuidadoras que conviven con personas en riesgo o situación de dependencia así reconocida por la Diputación Foral, y que no son usuarias de atención residencial permanente en servicios de alojamiento o centros residenciales.

**4. Artikulua: Zerbitzua ematea.**

**Zerbitzuaren gehienezko intentsitatea** mendekotasun-mailaren arabera ezarriko da. Bestalde, kontuan hartuko da beste zerbitzu batzuk erabiltzen ari diren. Hori dela eta, zerbitzua, baldintza hauen arabera emango da:

- Mendekotasuna izateko arriskuan dagoen pertsonaren zaintzailea: 12 ordu urtean.
- I. mailako mendekotasuna duen pertsonaren zaintzailea: 24 ordu urtean.
- II. mailako mendekotasuna duen pertsonaren zaintzailea: 36 ordu urtean.
- III. mailako mendekotasuna duen pertsonaren zaintzailea: 48 ordu urtean.

Mendekotasuna duen pertsonak beste zerbitzu edo prestazio batzuk jasotzen baditu –etxez etxeko laguntza-zerbitzua, eguneko arreta-zerbitzua, eguneko zentroa edo zentro okupazionala, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa edo zerbitzu horiei lotutako prestazioa–, zerbitzuaren gehienezko intentsitatea % 50 murriztuko da.

**Artículo 4º.- Prestación del servicio.**

La **intensidad máxima del servicio** se establecerá en función del grado de dependencia y de la utilización de otros servicios en los siguientes términos:

- Persona cuidadora de persona en riesgo de dependencia: 12 horas/año
- Persona cuidadora de dependiente en grado I: 24 horas/año
- Persona cuidadora de dependiente en grado II: 36 horas/año
- Persona cuidadora de dependiente en grado III: 48 horas/año

En el caso de que la persona dependiente disponga de otros servicios o prestaciones (servicio de ayuda a domicilio; servicio de atención diurna, centro de día u ocupacional; prestación económica de asistencia personal o prestación vinculada a dichos servicios) la intensidad máxima del servicio será minorada en un 50%.

Etxean mendekotasuna duten bi pertsona edo gehiago bizi badira, zerbitzuaren gehienezko intentsitatea 48 ordukoa izango da urtean.

La intensidad máxima del servicio cuando en el domicilio convivan dos o más personas dependientes será de 48 horas/año.

Ez dira kontuan izango Zainduz programaren barruan Getxoko Udalak antolatzen dituen prestakuntza-ikastaroak egiteko ematen diren atseden-orduak, baldin eta ikastaroetako asistentzia % 70era iristen bada.

No se computarán las horas de respiro destinadas a la realización de cursos de formación ofertados en el programa Zainduz organizados por el Ayuntamiento de Getxo siempre y cuando la asistencia a los mismos alcance el 70%.

Atseden-orduak urte bakoitzeko lehen egun baliodunetik azken egun baliodunera arte erabili ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, 08: 00etatik 22: 00etara. Jaiegunak izan ezik.

Las horas de respiro podrán ser utilizadas del primero al último día hábil de cada año, en horario de lunes a viernes, en horario de 8 a 22 horas. Excepto festivos.

Gutxieneko frakzioa eguneko 2 ordukoa izango da. 48 ordu lehenago eskatu beharko dira.

La fracción mínima será de 2 horas/día. Habrán de solicitarse con 48h de antelación.

Salbuespen gisa, abenduan aurkeztutako eskaerak zerbitzuan sartu ahal izango dira, eta gehienez ere hilabete horretarako emandako orduen proportzioan hartu ahal izango dira:

Mendekotasun-arriskuan dagoen pertsonaren zaintzailea: ordu 1 hilean
• I. mailako mendekotasuna duen zaintzailea: 2 ordu/hilabete
• II. mailako mendekotasuna duen zaintzailea: 3 ordu hilean
• III. mailako mendekotasuna duen zaintzailea: 4 ordu hilean

Excepcionalmente, las solicitudes presentadas en diciembre tendrán acceso al servicio pudiendo disfrutar de un máximo de horas, proporcional a las concedidas para ese mes:

- Persona cuidadora de persona en riesgo de dependencia: 1hora/mes
- Persona cuidadora de dependiente en grado I: 2 horas/mes
- Persona cuidadora de dependiente en grado II: 3 horas/mes
- Persona cuidadora de dependiente en grado III: 4 horas/mes

## II KAPITULUA. ZERBITZUREN SARRERA-PROZEDURA.

## CAPITULO II. PROCEDIMIENTO DE ACCESO AL SERVICIO

### 5. artikulua.- Eskaerak egiteko epea

Atseden-zerbitzua urte bakoitzeko **urtarrilaren 2tik abenduaren 5era bitartean** eskatu ahal izango da, salbu eta jaieguna bada; kasu horretan, hurrengo egun balioduna izango litzateke.

### Art. 5º.- Plazo de solicitud

El servicio de respiro se podrá solicitar **el 2 de enero al 5 de diciembre de cada año**, salvo que sea día festivo, en cuyo caso sería el siguiente día hábil.

**6. artikulua.- Zerbitzueren sarrera-prozeduraren eskera**

Zerbitzuan izena emateko prozedura hasiko da baldin eta atseden-zerbitzua erabili nahi duen pertsonak hala eskatzen badu; DN 234 eredu normalizatua erabiliko da horretarako, eta mendekotasuna duen pertsona identifikatzeko datuak jaso beharko dira bertan. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua eskatu eta araudi honetako baldintzak betetzen diren kasuetan izan ezik; kasu horretan, ofizioz egingo da.

Eskaerarekin batera hauek aurkeztu beharko ditu:

- Datuen bitartekaritza-plataformaren bidez egindako kontsultaren aurka ez egitea. Plataforma hori honako datu hauek eskatzen dira:

  Mendekotasun-maila

- Menpeko-pertsonaren ABPren (Arreta emateko Banakako Plana) kopia.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluak ezartzen du interesdunek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko.

Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuek dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahal izango dituzte, interesdunak modu arrazoituan horri aurka egin ezean.

Datu pertsonalen trataera legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Getxoko Udalari berari emandako botere publikoen izenean egindako eginkizun bat betetzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko

**Art. 6º.- Solicitud de acceso al servicio**

Se iniciará a petición de la persona interesada en el uso del servicio de respiro a través del modelo normalizado 234, con indicación de los datos identificativos de la persona dependiente, salvo en aquellos casos en los que se haya solicitado el SAD y se cumplan los requisitos de la presente normativa, en cuyo caso se hará de oficio.

A la solicitud deberá acompañar:

- La No oposición a la consulta a través de la plataforma de intermediación de datos que se incorpora en la solicitud de los siguientes datos:

  Grado de dependencia.

- Fotocopia del PIA (Plan Individual de Atención) de la persona dependiente.

La Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las AAPP en su artículo 28 establece que los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración.

Los Servicios sociales del Ayuntamiento de Getxo, podrá consultar o recabar dichos documentos salvo que el interesado se opusiera a ello de forma motivada.

El tratamiento de los datos de carácter personal queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al propio Ayuntamiento de Getxo, en los términos previstos en el

2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Getxoko Udalari dagokio prestazio/laguntza/dirulaguntza/beka honetara sartzeko eta mantentzeko araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, Administrazio Publiko ugarietatik bitarteko telematikoen bidez jasotako informazioa aintzat hartuta.

Interesdunak kontsultatzearen aurka eginez gero, aurkakotasun horrek arrazoituta egon beharko du. Kontuan izan aurka egiteko eskubidea erabili duzun izapideetan hura izapidetzeko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko duzula.”

**7. artikulua.- Eskabidearen ebazpena**

Atseden-zerbitzua erabiltzeko eskaeraren ebazpena dekretu bidez egingo da; interesdunari jakinaraziko zaio eta zerbitzua zein ordutan eskainiko den adieraziko zaio.

**8. artikulua.- Zerbitzua luzatzea**

Getxoko Udalak, ofizioz, zerbitzua urtero luzatuko die hala eskatzen duten pertsonei, eta eskaeraren uneko mendekotasun-mailaren arabera esleitutako ordu berei eutsiko die.

Luzapena dekretu bidez onartuko da, eta urte bakoitzaren hasieran jakinaraziko zaie interesdunei.

Mendetasun-maila urtebetean aldatzen bada, erabiltzaileak horren berri emango du, baliatu gabeko orduen aldea mendekotasun-gradu berriaren arabera esleitzeko.

Zerbitzua luzatu nahi ez bada,

artículo 6.1 e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016.

La verificación del cumplimiento de los requisitos establecidos en la presente normativa, para acceder y mantener esta prestación/ayuda/ subvención/beca se realizará por el Ayuntamiento de Getxo conforme a la información que se recabe por medios telemáticos de las diferentes Administraciones Públicas.

En el caso de la persona interesada desee oponerse a la consulta de sus datos dicha oposición deberá ser motivada. Tenga en cuenta que en los trámites en los que ejerza su derecho de oposición, deberá aportar toda la documentación necesaria para su tramitación. “

**Art. 7º.- Resolución de la solicitud**

La resolución de la solicitud de uso del servicio de respiro se realizará mediante decreto, que se notificará a la persona interesada e indicará las horas del servicio concedidas.

**Art. 8º.- Prórroga del servicio**

El Ayuntamiento de Getxo, de oficio, prorrogará el servicio cada año a las personas que lo soliciten, manteniendo las mismas horas que se le adjudicaron según el grado de dependencia del momento de la solicitud.
La prórroga se aprobará por Decreto y se comunicará a las personas interesadas a comienzo de cada año.

En caso de variación del grado de dependencia a lo largo de un año, ésta se notificará por parte de la persona usuaria, de cara a adjudicar la diferencia de horas no disfrutadas según el nuevo grado de dependencia.

erabiltzaileak idatziz eskatuko du, eta zerbitzua amaitutzat emango da dekretu bidez.

**9. artikulua.- Zerbitzua amaitzea**

Zerbitzua arrazoi hauetako batengatik amaituko da:
• Norberak eskatuta
• Erabiltzailearen heriotza
• Sartzeko baldintzaren bat galtzea (mendekotasuna duen pertsonarekin ez bizitzea, egoitza-zentroan sartzea, udalerrian ez bizitzea).

**III. KAPITULUA. AURREKONTU-TASA ETA -MUGA**

**10.artikulua.-Koordainketa**

Atsedenerako zerbitzua koordainketari lotuta dago. Zerbitzuaren prezio publikoaren ordainketa arautu ez denez, zerbitzua doan emango da.

**11. artikulua.-Aurrekontu-muga**

Atseden Zerbitzua, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (ELZ) aldaera gisa, ELZri esleitutako aurrekontu-partidaren zuzkiduraren gehieneko mugan egongo da. Atseden Zerbitzuari esleitutako urteko gastuaren gehieneko muga 60.000 €izango da.

**Xedapen indargabetzailea**: Indargabetuta geratzen dira 2018tik 2023ra bitarteko Atsedenaldi Zerbitzuaren arauak, 2124/2018, 99/2019, 181/2021,20/2022 eta 5702/2022 Dekretuen bidez onartuak

**Azken xedapena:** Arau hauek dekretu bidez onartu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean, eta indarrean jarraituko dute dekretu bidez aldatzen ez diren bitartean.

En caso de no querer prórroga del servicio, la persona usuaria lo solicitará por escrito y se dará por finalizado el servicio mediante Decreto.

**Art. 9º.- Finalización del Servicio**

El servicio finalizará por alguna de las siguientes circunstancias:

- Petición propia
- Fallecimiento de la persona usuaria
- Pérdida de alguno de los requisitos de acceso (no convivencia con persona dependiente, ingreso en centro residencial, no residir en el municipio…).

**CAPÍTULO III. TASA Y LÍMITE PRESUPUESTARIO**

**Art. 10º.- Copago**

El servicio de respiro está sujeto a copago. No habiéndose establecido la regulación del pago del precio público, el servicio se prestará con carácter gratuito.

**Art. 11º.- Límite presupuestario**

El Servicio de Respiro, como variante del Servicio de Ayuda a Domicilio (SAD), estará comprendido en el límite máximo de la dotación de la partida presupuestaria asignada al SAD. El límite máximo de gasto anual asignado al Servicio de Respiro no podrá ser superior a 60.000€.

**Disposición derogatoria:** Quedan derogadas las normas del Servicio de Respiro de los años 2018 al 2023 aprobadas por Decretos 2124/2018, 99/2019, 181/2021,20/2022 y 5702/2022

**Disposición Final:** Estas normas entran en vigor al día siguiente de su aprobación por Decreto y mantendrán su vigencia en tanto no se modifiquen por Decreto

Getxon, 2023ko abenduaren 28an

Igone Blanco Fernandez
**Gizarte zerbitzuetako koodinatzailea**
Coordinadora de Servicios sociales

**Ontzat emana:**
Carmen Díaz Pérez
**Gizarte Kohesiorako Zinegotzia**
Concejala de Cohesión social